

Ingurumen-politika

XEDEA

Gure erakundeak, gure gizarterako ingurumen osasuntsua eta ekologikoki jasangarria bermatuko duten jokabide arduratsu eta solidarioaren garrantziaren jakitun izanda, eta gure jarduera eta horren ingurumen-inpaktua kontrolatzeko eta kudeatzeko interesa kontuan hartuta, agiri honetan jasotzen du Euskalduna Jauregiaren zuzendaritzaren ingurumenarekiko konpromisoa.

HELBURUA

Euskalduna Jauregiaren kudeaketa-sisteman integratzea gure jarduerak bizi-ziklo osoan eragindako ingurumen-inpaktuak kontrolatu eta kudeatzeko beharrezkoak diren prozedurak, baliabideak zentzuz kontsumitu ahal izateko eta hondakinak, isuriak eta emisioak murrizteko.

PRINTZIPIOAK

- ❑ Ingurumena babesteko konpromisoa, ingurumenaren kutsaduraren prebentzioaren bidez, horrekiko errespetua eta gizarteak ingurumen osasuntsua izateko duen eskubidea bermatzeko lan-prozedurak eta -sistematikak ezarrita.
- ❑ Ingurumenarekiko konpromisoa etengabe hobetzeko prozesuan aurrera egitea ahalbidetuko diguten ingurumen-helburuak eta -jomugak ezartzea.
- ❑ Unean uneko indarreko legeria eta lege-betekizunak betetzea, baita Euskalduna Jauregiak boluntarioki onetsitakoak ere.
- ❑ Ingurumena babesteko eta errespetatzeko gure konpromisoa hedatzea gure hornitzaileengana, emakidadunengana eta kolaboratzaileengana, besteak beste.
- ❑ Gure langileen artean ingurumenarekiko arduratsua eta solidarioa den jokabidea sustatzea.
- ❑ Beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea ingurumen osasuntsua eta ekologikoki jasangarria izateko eskubidea bermatzeko, zeina ingurumenarekin lotutako giza eskubideari buruzko Bizkaiko adierazpenean aitortuta dagoen.

Ondorioz, zuzendaritza nagusiak konpromisoa hartzen du eskura dituen eta ezarritako helburua lortzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak emateko, baita horiek ingurumenaren arloko bilakaeraren arabera egokitzeko ere.

Zuzendari nagusia
Bilbon, 2018ko ekainaren 15ean